

INFORMAZIO OHARRA

Xabier Etxeberria Mauleón pentsalari etiko eta ekintzaile sozialak irabazi du Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa Humanitateen, Kulturaren, Arteen eta Gizarte Zientzien 2025eko Saria

- *Meritu hauek nabarmendu ditu epaimahaiak: zientzian, irakaskuntzan eta arlo zibikoan jasotako ezagutza, indarkeriaren biktimak aitortzeko konpromiso aktiboa, Latinoamerikako herri indigenen giza eskubideen defentsa eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen emandako babesa*
- *Jon Esnaola Agirre konpositoreari joan den apirilean emandako Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa Gazte Sariarekin osatu da 2025eko edizioaren palmaresa*

Bilbo, 2025eko maiatzaren 9a. Xabier Etxeberria Mauleónek irabazi du 2025eko Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa Saria, 1995az geroztik humanitateen, kulturaren, arteen eta gizarte-zientzien alorretako curriculumik onenak bereizten dituen. Sariduna aukeratzeko zereginetan, bi erakunde antolatzaileekin batera, Eusko Ikaskuntzaren geografia-eremuko zazpi unibertsitateetako eta Musikene – Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko ordezkariak hartzen dute parte.

Arroitzen jaio zen Xabier Etxeberria, 1944an. Filosofian doktorea eta katedradun emeritua da Deustuko Unibertsitatean. Irakasle-ibilbidean, arlo hauek landu ditu: Etika Filosofikoa, Lanbide Juridikoen Etika, Antropologiaren Etika eta Gizarte Lanaren Etika.

Ibilbide luze, emankor eta sakoneko pentsalari eta ekintzaile soziala izanik, identitate kolektiboak etikaren eta giza eskubideen ikuspegitik ulertzeko ahaleginen emaitza dira haren gogoeta asko eta irakaskuntza- eta dibulgazio-lana.

Nabarmena izan da Pedro Arrupe Institutuaren bidez Latinoamerikako herri indigenen giza eskubideen alde egin duen lana.

Bakearen eta indarkeriarik ezaren aldeko militantea izan da gaztetatik, eta gogotsu aritu da Euskal Herriko indarkeriaren biktimen bidegabeko sufrimenduaren aitortzan oinarritutako elkarrizketa eta adiskidetzat sustatzen. Konpromiso horrek bultzaturik, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundearen eta Bakeaz – Bakeari buruzko Dokumentazio

eta Ikerkuntzarako Zentroan hartu du parte; hain zuzen ere, zentro horretako hezkuntzaren arloko arduraduna izan da. Era berean, partaidetza aktiboa izan du biktimen testigantza entzuteko programan, «Adi-Adian hezkuntza-moduluaren» bidez —lehen Biktima Hezitzaileak—, baita Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren «Topaketa Errestauratiboan» programan ere.

Xabier Etxeberriak buru-belarri jardun duen hirugarren gizarte-taldea adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonena da. Horien eta horien familien eskubideen inguruko laguntza, aholkularitza eta ikerketa bultzatzeko sortu zen Plena Inclusión mugimendua, eta, Etxeberria erabat inplikaturik dago bertan.

Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa Sariaren epaimahaiaren aburuz, bi arrazoi daude Xabier Etxeberria Mauleónen curriculum nabarmentzeko: batetik, gizarte plural eta, askotan, gatazkatsuen arazo etikoei heltzeko gogoeta-sakontasuna, zorrotasun intelektuala eta kalitate morala; eta, bestetik, justizia sozialaren, giza eskubideen eta pertsona kalteberen (komunitate baztertuen edo gutxiengo desgaituen) bizi-baldintzen aldeko konpromiso zibikoa, hurbilketa teorikoetan zein balio ukaezina duten ekimen praktikoetan islatu dena.

Bere hausnarketekin eta konpromiso aktiboarekin, Etxeberria Mauleón doktoreak biktimen zentraltasuna onartzen lagundu dio euskal gizarteari, eta, ondorioz, biktimak eta biktimarioak elkartzeko eta adiskidetzeko politika publikoak diseinatu dira —eta gizartea sentsibilizatzeko planekin osatu—. Ildo horretan, ez da gehiegizkoa esatea benetako erreferentzia moral eta teorikoa izan dela Euskal Herrian bizikidetzaren berrezartzeko bide luzean.

Beraz, epaimahaiaren iritziz, Xabier Etxeberria Mauleónek merezi du 2025eko Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa Saria, zientzian, irakaskuntzan eta arlo zibikoan jasotako ezagutzagatik, herrialde barruan zein kanpoan justizia sozialaren alde egindako ibilbideagatik eta gure gizarteek bultzada etiko bat behar duten une historiko honetan egindako ekarpenaren esanahi bereziagatik.

Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa Gazte Saria

Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa Gazte Sariak osatu du 2025eko edizioaren palmaresa. Sari horrek 35 urtetik beherako gazteek humanitateen, kulturaren, arteen edo gizarte-zientzien alorretan

egindako sorkuntza- eta ikerketa-lanak babesten ditu 2019az geroztik. Joan den apirilean jakinarazi zutenez, aurtengo irabazlea Jon Esnaola Agirre konpositore tolosarra izan da, *LUUR*, Néstor Basterretxearen oroimenez izeneko musika-proiektuagatik.

Bi sariak emateko ekitaldirako data zehazteko dago oraindik.

XABIER ETXEBERRIA MAULEÓN

Xabier Etxeberria Mauleón (Arroitz, 1944). Filosofian doktorea da Deustuko Unibertsitatean, baita unibertsitate horretako Etikako katedradun emeritua ere 2010. urteaz geroztik.

Irakasle-ibilbidean, arlo hauek landu ditu: Etika Filosofikoa, Lanbide Juridikoen Etika, Antropologiaren Etika eta Gizarte Lanaren Etika. Deustuko Unibertsitatearen enkarguz, etika profesionalen irakaskuntza antolatu zuen titulazio guztietan, 1990eko hamarkadan. Xabier Etxeberriak esparru horretan egindako lanen artean, honako hauek azpimarra daitezke: alde batetik, Desclée De Brouwer argitaletxeko «Lanbideen Etika» bilduma, iberiar penintsulan Jesusen Lagundiaren babespean dauden unibertsitate guztietako eta Latinoamerikako unibertsitate askotako profesionalak prestatzen lagundu duena, eta, bestetik, Unibertsitate Jesuiten (UNIJES) Lanbideen Etikako Taldearen sorrera.

Latinoamerikako hainbat herrialdetako unibertsitateetan irakasle-lanetan aritzearen eta erakunde indigenekiko lankidetzaren bidez, oso lotuta dago kontinentearekin. Xabier Etxeberria erreferentzia ospetsua da herri indigenen giza eskubideen defentsan, luze jardun baitu ikertzaile eta prestatzaile gisa Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Pedro Arrupe Institutuaren bitartez.

Zuzenean inplikatu da etikaren eta giza eskubideen ikuspegitik eragin politiko eta soziala duten identitate kolektiboek buruzko eztabaidan, eta inplikazio horretan oinarritzen dira berak egindako gogoeta asko eta lan praktiko handia (hitzaldiak, eztabaidak, ikerketa partekatuak eta abar).

Bakearen eta indarkeriarik ezaren aldeko militantea izan da gaztetatik, eta bakearen aldeko gizarte-mugimenduan parte hartu du, hezkuntza arautuko espazioetan zein arautu gabeetan. Bakeaz – Bakeari buruzko Dokumentazio eta Ikerkuntzarako Zentroko Hezkuntzaren arloko arduraduna izan da.

Euskal Herrian bizikidetzaren berrezartzearekin konprometituta dago ikuspuntu akademiko, pertsonal eta politikotik, eta indarkeriaren biktimen bidegabeko sufrimendua aitortzearen bidez elkarriketa eta adiskidetzea bultzatzen dihardu aspalditik. Konpromiso horren erakusgarri ditugu, adibidez, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundearen parte hartzea, Biktimen Hezitzaileen programa prestatzea — programa horrek Adi-Adian izena du gaur egun — eta garai hartako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako Topaketa Errestauratiboen programa planifikatu eta gauzatzea.

Terrorismoaren biktimez eta herri indigenez gain, Xabier Etxeberriak buru-belarri jardun duen hirugarren gizarte-taldea adimen-desgaitasuna duten pertsonena da. Ia mila erakunde biltzen dituen Plena Inclusión mugimenduaren barruan, pertsona horien eta haien senideen eskubideen

inguruan laguntzen, aholkatzen eta ikertzen dihardu. Adimen Desgaitasuna duten Pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioko (FEVASeko) Estatuko Etika Batzordeko kidea da. Halaber, hainbat kongresu eta proiektutan hartzen du parte, eta argitalpen ugari plazaratu ditu desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruz eta pertsona horiek behar dituzten zaintza-mota desberdinetan aplikatu beharreko ikuspegi etikoari buruz.

NOTE D'INFORMATION

Penseur éthique et activiste social, Xabier Etxeberria Mauleón est le lauréat 2025 du prix Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa pour les sciences humaines, la culture, les arts et les sciences sociales.

- *Outre son parcours scientifique, éducatif et civique, le jury a souligné son engagement actif en faveur de la reconnaissance des victimes de la violence et des droits humains des peuples indigènes d'Amérique latine, ainsi que son soutien aux personnes souffrant de déficiences intellectuelles.*
- *Le palmarès de l'édition 2025 est complété par le prix Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa Gazte Saria décerné en avril dernier au compositeur Jon Esnaola Agirre.*

Bilbao, le 9 mai 2025. Xabier Etxeberria Mauleón est le lauréat du prix Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa 2025 qui, depuis 1995, reconnaît la carrière d'une personnalité dans le domaine des sciences humaines, de la culture, des arts et des sciences sociales. Le jury comprend, outre les deux organismes qui décernent le prix, des représentants des sept universités de l'aire géographique d'Eusko Ikaskuntza et de Musikene, le centre supérieur de musique du Pays basque.

Né à Arroitz-Arróniz en 1944, il est docteur en philosophie et professeur émérite à l'université de Deusto. Tout au long de sa carrière, il a enseigné l'éthique philosophique, l'éthique des professions juridiques, l'éthique de l'anthropologie et l'éthique du travail social.

Penseur et activiste social à la carrière longue, fructueuse et foisonnante, ses efforts pour comprendre les identités collectives dans la perspective de l'éthique et des droits humains ont nourri nombre de ses réflexions et son travail d'enseignement et de diffusion.

À ce titre, son action de défense des droits humains des peuples indigènes d'Amérique latine par l'intermédiaire de l'Institut Pedro Arrupe est remarquable. Militant pour la paix et la non-violence depuis sa jeunesse, il a œuvré en faveur du dialogue et de la réconciliation sur la base de la reconnaissance des souffrances injustes infligées aux victimes de la violence au Pays basque. Cet engagement l'a conduit à participer à Gesto por la Paz et à Bakeaz, Centre de documentation et d'études pour

la paix, dont il a été responsable du Département de l'éducation. Il a également contribué au développement du programme d'écoute des témoignages des victimes par le biais du « Module éducatif Adi-adian » (anciennement appelé « Témoignage des victimes en milieu scolaire »), ainsi que des « Rencontres restauratives » de la Direction de la prise en charge des victimes du terrorisme du Gouvernement basque. Le troisième groupe social sur lequel Xabier Etxeberria a centré ses efforts est celui des personnes souffrant de déficiences intellectuelles et de troubles du développement. Il s'est ainsi impliqué sans réserve dans le mouvement Pleine Inclusion qui vise à soutenir, à conseiller et à mener des recherches sur les droits de ces personnes et de leur famille.

De l'avis du jury du prix Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa, la carrière de Xabier Etxeberria Mauleón se distingue pour deux raisons : pour la qualité de la réflexion, la rigueur intellectuelle et la qualité morale avec lesquelles il aborde les problèmes éthiques de sociétés plurielles souvent marquées par des conflits et pour son engagement civique en faveur de la justice sociale, des droits humains et des conditions de vie des personnes vulnérables, qu'il s'agisse de communautés marginalisées ou de minorités handicapées, qui se cristallise à la fois dans des approches théoriques et des initiatives pratiques d'une valeur incontestable.

Grâce à ses réflexions et à son engagement actif, le Dr Etxeberria Mauleón a aidé la société basque à placer les victimes au cœur de ses préoccupations, ce qui s'est traduit par l'instauration de politiques publiques en faveur de la rencontre et de la réconciliation des victimes et des coupables, complétées par des plans de sensibilisation de la société. En ce sens, il n'est pas trop fort de le décrire comme un authentique visionnaire moral et théorique sur le long chemin vers la restauration du vivre ensemble en Euskal Herria.

Selon le jury, Xabier Etxeberria Mauleón mérite pleinement le prix Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa 2025 pour son parcours scientifique, éducatif et civique, pour sa carrière en faveur de la justice sociale dans le pays et à l'étranger et son inestimable contribution à un moment de l'histoire où nos sociétés réclament un affermissement éthique.

Prix Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa Gazte Saria

Le palmarès de cette édition est complété par le prix Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa Gazte Saria 2025, qui soutient depuis 2019 les travaux et séjours de création ou de recherche de jeunes de moins de 35 ans dans les domaines des sciences humaines, de la culture, des arts ou des sciences

sociales. Annoncé en avril dernier, le lauréat est, cette année, le projet musical *LUUR, en mémoire de Néstor Basterretxea*, du compositeur de Tolosa Jon Esnaola Agirre.

La cérémonie de remise des deux prix aura lieu à une date qui reste à préciser.

XABIER ETXEBERRIA MAULEÓN

PRIX EUSKO IKASKUNTZA – LABORAL KUTXA POUR LES SCIENCES HUMAINES, LA CULTURE, LES ARTS ET LES SCIENCES SOCIALES 2025

XABIER ETXEBERRIA MAULEÓN (Arroitz-Arróniz, 1944). Docteur en philosophie de l'Université de Deusto et professeur émérite d'éthique dans cette même université depuis 2010.

Tout au long de sa carrière, il a enseigné l'éthique philosophique, l'éthique des professions juridiques, l'éthique de l'anthropologie et l'éthique du travail social. Dans les années 90 et mandaté par l'université de Deusto, il a organisé l'enseignement de l'éthique des professions de tous les cursus de l'établissement. Les principales réalisations de Xabier Etxeberria dans ce domaine sont, d'une part, la collection « Éthique des professions » de la maison d'édition Desclée De Brouwer, qui a contribué à la formation de professionnels dans toutes les universités confiées à la Compagnie de Jésus dans la péninsule ibérique, ainsi que dans de nombreuses universités d'Amérique latine, et, d'autre part, la création du Groupe d'éthique des professions des universités jésuites (UNIJES).

Il entretient des liens étroits avec l'Amérique Latine grâce à son enseignement dans les universités de plusieurs pays du continent et à sa collaboration avec des organisations indigènes. Xabier Etxeberria est devenu une figure de proue de la défense des droits humains des peuples indigènes grâce à ses nombreuses activités en tant que chercheur et formateur au sein de l'Institut des Droits Humains Pedro Arrupe de l'université de Deusto.

Son implication dans le débat sur les identités collectives à impact politique et social sous l'angle de l'éthique et des droits humains est à l'origine de nombre de ses réflexions et d'un intense travail de terrain (conférences, débats, recherches chorales, etc.).

Militant pour la paix et la non-violence depuis sa jeunesse, il a participé au mouvement social pour la paix depuis les espaces d'enseignement formels et informels. Il a été responsable du Département de l'éducation de Bakeaz, Centre de Documentation et d'Études pour la Paix.

Engagé du point de vue académique, personnel et politique envers le rétablissement du vivre ensemble au Pays basque, il œuvre depuis de nombreuses années en faveur du dialogue et de la réconciliation par le biais de la reconnaissance des souffrances injustes infligées aux victimes de la violence. Cet engagement s'est traduit à la fois par sa participation à Gesto por la Paz et par le développement du programme « Témoignage des victimes en milieu scolaire », qui se poursuit aujourd'hui sous le nom d'Adi-Adian, ainsi que par

la planification et la mise en œuvre du programme « Rencontres restauratives » de l'ancienne Direction de la prise en charge des victimes du terrorisme.

Outre les victimes du terrorisme et les peuples indigènes, le troisième groupe sur lequel Xabier Etxeberria a orienté ses efforts est celui des personnes souffrant de déficiences intellectuelles. Au sein du mouvement Pleine Inclusion, réseau réunissant près d'un millier de structures, il mène un travail de soutien, de conseil et de recherche sur les droits de ces personnes et de leur famille. Depuis sa constitution en 2005, le réseau est membre du Comité étatique d'Éthique de la Fédération basque des Associations en faveur des Personnes Handicapées Mentales (FEVAS) et participe à des congrès et à des projets, en publiant des articles sur les droits des personnes handicapées et sur l'approche éthique applicables aux différentes formes de prises en charge requises par ces personnes.